

OFÉ* DEIALDIA

*objektu filmatu ezezaguna

Akitania Berriarekin abiatu 2021-2023ko Helburu eta Baliabide Kontratuaren kariatara, TV7 eta Kanaldude telebistek, 2021an, OFÉ (objektu filmatu ezezaguna) proiektu deialdi bateratua proposatzen dute.

OFÉ gaur egungo gizarte gaiak jorratuko dituen 6 filmez osaturiko dokumental bilduma bat izanen da. Proiektuak ondoko irizpideen arabera aukeratuak izanen dira : ausardia, forma aldetik anbiziotsua, gaien orijinaltasuna. Bilduma honen ardatza gaur egungo jendarteari buruzko ikuspegi berezi eta zinematografikoak ezagutaraztea.

Proiektu-deialdiaren bururatzea : 2021eko azaroaren 2a

Txostenak telebista kateen egoitzetan aztertuak izanen dira, mundu profesionaletik datozen irakurleekin osatu hautaketa-batzordean. Urtero, **20 000€-ko** diru-ekarpina egingen dute telebistek (bakoitzak 10 000€) eta beharrez industria-ekarpen batekin (proiektuaren beharren arabera zehaztekoa).

PROIEKTUEN HAUTAKETA

Telebista kateetako ordezkariak eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa berantenez 2021eko abendo bukaeran egingen da.

HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

MOTA : sorkuntza-dokumental biziki sortaileak

GAIK : Gaur egungo gizartea

IRAUPENA : 40 eta 90 minuturen artean

HAUTAGAIK :

Nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten duten egiturek soilik (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteek) aurkez ditzazkete proiektuak. Horrez gain, soilik ekoizle exekutiboek aurkez ditzazkete proiektuak, eta ez ekoizle betearazleek.

Proiektuek gutenez ondoko irizpide bat bete behar dute:

- Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura Akitania Berria eskualdeko lurraldean finkatua da eta nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten du (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteak)
- Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia Akitania Berria eskualdeko lurraldean du
- Proiektuak kultur harreman azkarra du Akitania Berriarekin; izan lurraldeko ezaugarri kultural, historiko, sozial edo ekonomikoekin.

HIZKUNTZA : Hizkuntza guztiak onartuak dira.

Hautagaiek TV7 telebistari frantsesezko bertsioa eman beharko diote eta Kanalduderi berriz euskarazko bertsioa. Bertsio ezberdinen egiteko gastuak aurrekontuan integratu beharko dira.

FILMAREN ENTREGATZE DATA : Filmak berantetik 2023ko irailean eskuetaratu beharko dira.

AITZINAMENDU EGOERA : Proiektuak grabaketa fasea bukatu aitzin aurkeztu behar dira.

BESTE IRIZPIDEAK :

Irakurketa-batzordeak ondoko irizpideei kasu eginen die :

- Proiektuak kalitatezkoak izatea : editorialki ausarta eta forma aldetik anbiziotsua
- Produkzio eta banaketa estrategia : nazioarterako idekidura balioetsia

Telebisten aurreko deialdietan onartuak izan ez diren proiektuek ezingo dute deialdi honetan aurkeztu, salbu telebistek baimen berezi bat ematen badiete (Programen arduradunekin harremanetan jarriz).

PROIEKTUEN AZTERKETA

Txostenak frantsesez idatziak izan behar dira.

2021eko azaroaren 2a aitzin, e-mailez bidali beharko dira. Txosten bakoitza PDF fitxategi bakar batean aurkeztu behar da eta fitxategiak ez du 10 Mo-ko pizua gaintu behar. Txostenak helbide hauetara bidali behar dira: d.cortadi@tv7.com eta loic@kanaldude.eus

Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

Txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira :

- Fitxa artistiko eta tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura-helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua...); filmaketa eta postproduzio lekuekin; talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin.
- Filmaren laburpena
- Autorearen edo zuzendariaren xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Sinopsi garatua edo gidoia
- Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko.
- Aurrekontu zehatza
- Finantzamendu-plana, bildu diren finantzamenduak zehaztuz
- Autoreen eta film-egileen CVa
- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis dokumentua sozietateentzat, edo prefeturako frogagiria elkarreentzat.

Kontaktuak :

Damien Cortadi, TV7
d.cortadi@tv7.com / 06 16 11 23 15

Loïc Legrand, Kanaldude
loic@kanaldude.eus / 06 81 27 55 51